

-eLARIK



Mila zortziehun eta berrogeita bortzean,
buruilaren hastean, astelehen goiz batez,
Sarako ezkilak bederatzi orenak jotzen
zitu~~elarik~~, mutiko gazte luze bat, hamabortz
urteren ingurua nonbait han zukeena,
Leheteko jauregiaren hegian barna Azkaingo
bidean, haia-haia zihoan.

Jean Baptiste Elizanburu, *Piarres Adame*, 1888



...Sarako ezkilak bederatzi orenak
jotzen zituelarik... (= zituenean)

Denborazko –eNEAN menderagailuaren parekoa da
-eLARIK menderagailua, aurreko adibidean.
Ekialdeko euskalkietan erabiltzen da, batez ere.



Denborazko adiera dute esaldi hauek ere:

- Ⓢ Mendia laket zitzaidan, gazte **nintzelarik**.
- Ⓢ Adiskideak **etorri direlarik**, alde egin duzu.
- Ⓢ Lehen egunetan, hartzidura aerobikoa gertatzen da; gero, oxigenoa **ahitzen delarik**, hartzidura anaerobikoa hasten da.



Adiera horretaz gainera, baditu beste balio batzuk ere:

MODUA

Han bertan zendu zen, sorosleek ez **zezaketelarik** deusik egin.

KAUSA

Hain bizkorra **delarik**, nola ez aipa Yourcenar-en obra.

BALDINTZA

Lur txarrenean bihirik ederrena atera daiteke, ongi egina **delarik** gernu-ongarria.

KONTZESIOA (-eLARIK ERE)

Elurra **ari duelarik ere**, aterako gara.



Hala ere, tradiziozko erabilera horiek alboratuta, -eLARIK desegokiak zabaldu dira azkenaldian. Esaterako:

*Basoilarra hegazti
paleoarktikoa da, bere
bizilekua batez ere Eurasiako
iparraldeko taiga zabaletan
duelarik.*



Adibide honetan, berriz, ondoriozkotasuna adierazi nahi da, eta tradizioan ez dago halakorik:

*Haizeteak sua eragin zuen
Zalduondon, udaletxea erre
zelarik.*

Halakoak jorratuko ditugu datorren astean.

**Bitartean, pentsatu
nola adieraziko zenituzkeen zuk bi esaldi horiek.**

